

JAKINARAZITAKO JARDUEREN PROZEDURA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA.- 2012ko Uztailaren 25ean egindako Plenoan onartuta.

LEHENENGOA.- XEDEA.-

Ordenantza honen xedea honakoa da: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/06 Legearen 207.5 artikuluan, zerbitzugintzan sarbide librea izateari eta hartan jarduteari buruzko azaroaren 23ko 17/09 Legean eta 17/09 Legera egokitze aldera hainbat lege aldatzen dituen 25/2009 Legean ezarritakoa garatzea. Horien artean, jarduerak egiteko prozedurei zuzenean eragiten diete Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legean aldatutako artikulua.

Xedea "jakinarazitako jarduerak" izenekoak arautzea da. Horietan, jarduerok egin edo betetzeko, lizentzia eskuratzeko beharraren ordeztu, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko aitortzea egin behar du, idatziz, pertsona interesdunak udaleko administrazioarentzat, baldin eta obrek garrantzia tekniko txikia bada edo ez bada proiektu teknikorik aurkeztu behar, sailkatu gabekoak edo katerik gabekoak diren jarduerak badira eta ordenantza honetan aurreikusten diren gainerako jarduerak badira.

BIGARRENA.- JAKINARAZITAKO JARDUERA.

Garrantzia tekniko txikiko obra horietarako nahiz ordenantza honetan aurreikusten diren bestelako jardueretarako baimenak eskuratzeko, nahikoa izango da eskatzaile fisiko edo juridikoak aurretiaz eta idatziz jakinaraztea, xede horrekin prestatutako inprimakia betez.

Jakinarazpen horrek, oro har, indarrean dauden Ordenantza Fiskalak betez eta kasuan kasuko jardura jakinaraziaren arabera, EOZ, tasa, prezio publiko edo/eta udal-zerga egokien autolikidazioa ekarriko du berekin.

HIRUGARRENA.- JAKINARAZITAKO JARDUERA BIDEZKO OBRAK.-

Aurretiaz jakinarazitako jardueren prozeduraren bidez eskuratzen diren lizentzien xede diren obrek ondoko baldintza hau bete beharko dute ezinbestean:

Egiturazko elementuengan, eraikinaren segurtasunarengan eta egonkortasunarengan nahiz eraikinaren eraikigarritasunarengan (tarteko solairuak) eragina ez duten obra txikiak izan behar dira.

Obra horiek ondoko hauek dira:

- 1.- Etxebizitzak, atariak, eskailerak, leihoak eta abar zaharberritzea.
- 2.- Terrazak edo barruko patioak birgaitzea (zolatzea eta iragazgaiztea...).
- 3.- Garajeak asfaltatzea edota margotzea, edo garajeetako ateak ordeztzea.
- 4.- Lokalak merkataritzako jarduerak eta establezimendu iraunkorretan zenbait zerbitzu emateko berritzea, birgaitzea edota egokitzea, betiere establezimenduaren azalera baliagarria 300 m²-koa baino txikiagoa bada eta ondorengo 19/2012 LEDren Eranskineko zerrendan sartuta badaude.

Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeari buruzko maiatzaren 25eko 19/2012 LEDren eranskina.

Oro har, jangaien eta edarien txikizkako merkataritza:

- Frutak, barazkiak, ortuariak eta tuberkuluak.
- Haragi eta hondakinen; haragi-gai eta haragiki landuen, arrautza, hegazti, abeletzeko untxi eta ehizakien; eta beraien ekoizkin eratorriak.
- Okela freskoen eta izoztuen urdaitegiak eta harategiak (aurreko atal osokoak).
- Arraindegia: Arrainak, arrantzako beste produktu batzuk, akuikultura, barraskiloak, bakailaoa eta gatzunetako beste arrain batzuk.
- Okindegiak, gozotegiak, gozo-dendak eta antzekoak, esnea esnekiak, ogi bereziak eta opilak.
- Izoztegiak, bonboiak, karameluak.
- Masa frijituak, aperitiboak, fruitu lehorrak, litxarrera, txokolatezko prestakinak, freskagarriak.
- Ardoak eta era guztietako edariak.
- Elikagaiak eta edariak oro har, saltzailearekin; autozerbitzuetan edo mistoetan, saltzeko lokala 120 m²-koak baino txikiagoa denean; eta saltzeko lokala 120 eta 399 m² bitartekoa denean.-

Elikagaiak ez diren industri produktuen txikizkako merkataritza:

- Ehunak, jostintzakoak, oinetakoak, larrukiak, etxeko jostintza, tapizak, tapizeria eta antzekoak; jantziak eta kapeluak, lentzeria eta kortse-dendak; mertzeria eta paketeria; jantzi bereziak; oinetakoak, larrukiak eta imitazioa, gerrikoak, zorroak, poltsak, maletak, bidaiako produktuak.
- Larru-dendak.
- Drogeriak eta garbitasunekoak; lurrindegia eta kosmetikoak, produktu kimikoak oro har, belarrak eta landareak belar-dendetan; margoak, bernizak, disolbagarriak, paperak eta bestelako apaingarriak, banakoaren higie eta garbiketarako produktuak.
- Etxea hornitzeko eta eraikuntzarako produktuak; altzariak, material eta aparatu elektrikoak, elektronikoak, etxeko tresna elektrikoak eta etxeko beste erabilerakoak, baita sukaldeko altzariak ere; etxeko hornidura, burdindegiko produktuak, apaingarriak, opariak.
- Eraikuntzako materialak eta saneamenduko altzariak.
- Ateak, leihoak, pertsianak, markoak eta moldurak, tarimak, parketa, otzarak, kortxozko produktuak, brikolaje produktuak, etxea hornitzeko produktuak.
- Lurreko ibilgailuak, aireontziak, itsasontziak eta makineriak, osagarriak eta aldatzeko piezak, ibai eta itsasoko bela-ontziak, edo motordunak, eta kirolekoak.
- Makineria; estalkiak, bandak edo bandejak eta aire-ganberak era guztietako ibilgailuetarako.
- Ondasun erabiliak (altzariak, jantziak, etxeko erabilerako tresnak).
- Musika instrumentuak eta osagarriak.
- Zigiluak, txanponak, dominak, bilduma-egileentzako billeteak, artelanak eta antzinako gauzak, mineralak, fosilak, intsektuak, etab.
- Bulegoko eta makinetako altzariak eta bulego ekipoak.
- Aparatu eta tresna medikoak, ortopedikoak eta optikoak.
- Liburu, egunkari, papergintzako osagai eta irudi eta arte ederrak.
- Bitxigintza, erlojugintza, zilargintza eta bisuteria.
- Jostailuak, kirol produktuak, kirol jantziak, oinetakoak eta kapeluak.
- Haziak, ongarriak, loreak eta landareak eta animalia txikiak.
- Sex-shop-a eta zehaztu gabeko beste produktu batzuk.
- Etxerako eta automobiletarako aparatu elektrikoak eta kontsumo-ondasunak konpontzea.
- Bidaia agentziak, aseguru-bulegoak, higiezen agentzia.

-Ikuztegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.
- Apaindegiak, edertasun aretoak eta estetika kabineteak.
-Argazki zerbitzuak, makina automatikoak, fotokopiategiak, markogintza".

- 5.- Etxebizitza eta atarietako instalazio elektrikoak, iturgintza-lanak, gasa eta saneamendu-sarea berritzea.
6.- Saneamenduko eta ur edangarriko sare pribatuen premiazko konponketak egitea, ihesak, hausturak eta abar direla-eta.
7.- Teilatutan eta fatxadetan egiten diren premiazko konponketa txikiak egitea (teilaerorketak, lauza txikiak, zarpiatuak, estaldurak, erretenak, eta abar.)
8.- Beheko solairuko lokalen eta etxebizitzaren kanpoko itxura aldatzeko obrak gauzatzea, horiek fatxaden elementu komunak aldatzea eragiten ez dutenean (toldoak, hesi-sareak, pintura, zurgintza bikoitza, pertsianak eta antzekoak).
9.- Jakinarazitako jardueren luzapenak betetzea.
10.- Antzeko beste batzuk.

Partidaka zehaztutako aurrekontua erantsiko da, materialen, eskulanaren eta makineriaren aurrekontuak barne.

LAUGARREN ARTIKULUA.-

Lehenengoa.- Sailkaturiko JARDUERAK eta instalazioak, jardueraren aurretiazko jakinarazpena bete behar dutenak, edo SAILKATURIKO JARDUERA JAKINARAZIAK.

BIGARRENA.- Jarduera sailkatua hastea jarduera lizentziaren ondoren.-

4.1.1.- Kontsulta.-

Jakinarazitako jarduera sailkatua sustatu behar duten pertsona fisikoek edo juridikoek aurretiazko kontsulta egin dezakete udaletxean.

4.1.2.- Jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena.-

Jakinarazitako jarduera sailkatua egiten hasi dela udalari jakinarazten dioten pertsona fisikoek edo juridikoek horretarako ezarritako inprimakia beteko dute, eta agiri hauekin batera aurkeztuko dute:

Jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenarekin batera joan behar duten agiriak:

-Jarduerak ingurumenean, pertsonengan edo horien ondasunetan izan dezakeen eragina gutxitzeko ezarritako neurriak eta jarduera deskribatuko dituen memoria.

-Teknikariak luzatutako ziurtagiria. Jarduerak edota instalazioak eraikuntza proiektuari eta aurkeztutako dokumentazio teknikoari lotzen zaizkiola eta ingurumen beharkizun guztiak betetzen direla egiaztatuko du ziurtagiriak.

Jakinarazpena egindakoan, aurkeztu den egunean hasi ahal izango jarduera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71 bis artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Soilik jardueraren eta ziurtagiria eman duen teknikariaren erantzukizunpean hasiko da jarduera, betiere jarduera hasteko bestelako aginduzko kontrolak edo tituluak eduki beharrari kalterik egin gabe, sektoreko araudi aplikagarriaren arabera.

Baldin eta 7/12 Legearen bidez aldaturiko 3/98 Legean ezarri den jakinarazitako jarduera sailkatuetako batek II. eranskineko B atalean xedaturiko mugak gainditzen baditu jardunbidean, jarduera sailatuaren lizentziaren araubidea aplikatu beharko da. Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Legearen II. eranskineko B) atalean daude bilduta jakinarazpen bidez has daitezkeen jarduerak. Honako hauek dira hain zuzen ere:

4.1.3.- Aurretiazko jakinarazpena bete behar duten jarduera sailkatuen zerrenda:

1.- Argindarra ekoizteko instalazioak eta energia berriztagarria atzemateko eta argindar bihurtzeko instalazioak, jarritako 50 kW-tik gorako potentziakoak eta 100kW-koak edo txikiagokoak.

2.- Hainbat lantegi (aroztegiak; galdaragintza; muntaketa; mekanizazioa; ogi eta gozoki lantegiak, catering-a, etab.), noiz-eta jarritako guztizko potentzia (mekanikoa eta elektrikoa, argiteriakoa alde batera utzita) 25 kW-tik beherakoa denean eta ekoizpenerako beren beregi ezarritako azalera 300 m²-koa baino handiagoa ez denean, salbu eta azaleko tratamenduak edo berniza emateko edo pistolaz margotzeko eragiketak eta antzekoak badira; izan ere, horiek jarduera sailkatuak dira.

3.- Biltegiatze, merkataritza eta II A Eranskineko 7. puntuan sartu ez diren produktuen eta materialen erakusketarako jarduerak edo instalazioak, hots, toxiko, arriskutsu edo sukoitzat hartutako produktuak, guztira 500 kg-tik beherakoak egoitzako hiri lurzoruan, eta 1.000 kg-tik beherakoak gainerako lurzoruetan.

4.- 50.000 litroko edukiera gainditzen ez duten erregai likidoak edo gaseosoak biltzeko instalazioak, salbu eta zerbitzu-gunekoak, hornidura-gunekoak, instalazio banatzailekoak edo antzeko instalaziokoak badira.

5.- Ibilgailuak gordetzekoak.

6.- Zerbitzu jarduerak hala nola haurtzaindegiak, ikastetxeak, osasun etxeak eta atentzio farmazeutikokoak, albaitaritza klinikak, polizia-etxeak eta segurtasun zentroak, ile-apaindegiak, masaje aretoak eta ehorztetxeak.

7.- Hotel eta egoitza komunitarioak, adinekoen egoitzak, ostalarien etxeak eta antzeko establezimenduak.

8.- Ostalaritzako eta ikuskizun publiko eta jolasetako establezimenduak, jarduera sailkatuaren lizentzia behar ez dutenak.

9.- Abeltzaintzako ustiategi txikiak eta etxeko eskortak, Ingurumenaren Babesari buruzko 3/98 Lege Orokorraren II. eranskineko A) hizkian sartu ez direnak.

10.- Transformazio zentroak.

11.- Informazioa tratatzeko eta komunikatzeko zerbitzuak (kalkulu zentroak, datu-bankuak, satellite bidezko irrati eta telebista errepikagailuak, telefonia mugikorreko estazio baseak eta antenak (BTS), informazioaren tratamendu elektroniko edo informatikorako zentroak, irrati-telefoniako eta irrati-telegrafiako estazioak, irrati eta telebista emisoreak eta alarmak kontrolatzeko zentrala eta antzekoak).

12.- Instalazio osagarriak

12.1.- Galdara gelak

12.2.- Aire egokituko instalazioak.

12.3.- Hozkailuen instalazioak.

12.4.- Erradiodiagnostiko medikoko instalazioak (X izpien ekipoak).

13.- Errausketa-laberik gabeko tanatorioak eta hilerriak.

14.- Euskadiko Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Legearen 55. artikulua arabera osasunean eta ingurumenean antzeko eragina izan dezaketen bestelako jarduerak batzuk.-

4.1.4.- Honako arau hauek bete beharko ditu aurretiazko jakinarazpena behar duten jarduerak sailkatuak hasteko prozedurak:

4.1.4.1.- Eskatzaileak bikoiztuta beteko du horretarako gauzaturiko jakinarazpen-inprimakia. Ordenantza honetan kasu guztietarako eskaturiko agiriak erantsiko dira. KOLren autolikidazioa, tasak, prezio publikoak edo udalaren zerga ordenantzen arabera aplikatu beharreko zergak aplikatuko dira.

4.1.4.2.- Jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenarekin batera, aginduzkoa da ingurumen memoria eta ziurtagiri bat aurkeztea. Teknikari eskudunak egingo du ziurtagiria, eta jarduerak ingurumenaren gaineko betekizunak betetzen dituela egiaztatuko du.

Ez da aurretiazko jakinarazpena onartuko baldin eta horrekin batera ez bada aurkezten 3/98 Legeak exijituriko dokumentazioa (apirilaren 23ko 7/12 Legeak aldatu duen moduan).

Halaber, hauek aurkeztuko dira:

-Ekonomi Jardueraren gaineko Zergaren (EJZ) altaren kopia edo, nahiago izanez gero, agiri hori eskuratzeko baimena administrazioaren esku dagoenean.

-Zabor eta Estolderiaren Tasaren altaren kopia.

Egiaztapen egokiak egindakoan, "Jakinarazitako jarduera" zigiluarekin beteriko jakinarazpen-inprimakiaren kopietako bat itzuliko zaio eskatzaileari.

4.1.5.- Jarduera hasi dela jakinarazteko aurkezturiko agiria. Horrekin batera, ingurumen memoria eta zuzenketa neurriak betetzeari buruz teknikari eskudunak emandako ziurtagiria. Plangintza, Kudeaketa eta Ingurumen Sailari helaraziko zaizkio, ondorioak izan ditzaten, jardueren erregistroko ohar gisa, etab. Udalaren zerbitzu teknikoek ikuskapena egingo dute jardueraren tokian bertan, aplikatu beharreko araudia betetzen dela egiaztatzeko. Baldin eta funtsezko edozein zehaztasunik ez,

oker edo ez aipatze egiaztatzen bada, aurretiazko jakinarazpenarekin batera edo bertan sartzen den edozein adierazpen edo agiri, ezin izango da jarduerarekin jarraitu.

Inguruabar horiek adierazten diren ebazpenean, honako hau ezar daiteke: interesa duenak nahitaez lehengoratu behar du egoera juridikoa, hain zuzen eskubidea aintzatetsi edo erabili aurreko unera edo jarduera hasi baino lehenagoko unera. Gainera, ezin izango da helburu bera duen beste prozedurarik eskatu denboraldi jakin batean, hori guztia aplikatu beharreko sektoreko arauetan ezarritakoarekin bat etorritz.

BIGARRENA.- Jarduera sailkatua hastea jarduera lizentzia lortu ondoren.-

4.2.1.- Jarduera LIZENTZIA BEHAR DUTEN JARDUERA SAILKATUAK hastea.-

Jarduera lizentzia behar duten jarduera sailkatuetan, lizentzia lortu eta obrak egindakoan, aurretiazko jakinarazpenaren menpe jarriko da jardueraren hasiera.

4.2.2.- Agiriak eta prozedura

Jakinarazpena betetzearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira aginduz, hala ezarrita baitago Ingurumenaren Babesari buruzko 3/98 Lege Orokorrean:

- Jarduerak edota instalazioak eraikuntza proiektua eta aurkezturiko agiri teknikoak betetzen dituela eta jarduerari inposaturiko zuzenketa neurriak bete direla egiaztatzen duen ziurtagiria, teknikari eskudunak emandakoa".

BOSGARRENA.- HERRI-BIDEAREN OKUPAZIOA

1.- HERRI-BIDEA edukiontziekin, pilaketekin, makinekin, aldamioekin, hesiekin eta abarrekin OKUPATZEA.

- Egiaztatu beharreko baldintzak eta aurkeztu beharreko datuak:

- Dagokion obra-lizentzia duen egiaztatuko da (lokalen garbiketarako salbu).

- Lekua (kalea eta zenbakia), azalera eta okupazio-epea.

- Herri-bidea okupatzen duten edukiontzi eta bestelakoak aparkalekuetan instalatuko dira.

SEIGARRENA.- APARKATZEA DEBEKATZEKO PLAKAK.-

1.- Egiaztatu beharreko baldintzak:

- Pabilioiak edo lokalak irekitze- eta jarduera-lizentzia dituen egiaztatuko da.

- Garaje eta aparkalekuen jarduerak aparkatzea debekatzeko plakak edo ibi iraunkorreko plakak eskuratzeko eskubidea dute, udalerrri osoan.

- Gainerako jarduerak industriako hiri-lurzoruan kokatuta badaude bakarrik eskuratu ahal izango dute aparkatzea debekatzeko plaka.

- Zintarria behertu beharrik ez dutela egiaztatuko da.

2.- Aurkeztu beharreko datuak:

Garaje eta aparkalekuetarako plakak:

- Ibilgailu-kopurua eta igarobidearen luzera adieraziko dituzte.

Gainerako establezimenduentzat:

- Jarduera-mota (industriakoa edo merkataritzakoa) eta igarobidearen luzera adieraziko

dituzte.

ZAZPIGARRENA.- LOKALAREN FATXADARI ATXIKITAKO ERROTULUAK.-

- 1.- Aurkeztu beharreko datuak:
- Errotuluaren neurriak eta ezaugarriak
 - Argazkia, errotuluaren kokapena adieraziz.

ZORTZIGARRENA.- PROZEDURA.-

Pertsona eskatzaileak bi aletan beteko du xede horrekin prestatutako jakinarazpeninprimakia.

Inprimaki horri Ordenantza honetan kasu ezberdinentzat eskatutako dokumentazioa erantsiko zaio. Udaleko zerga-ordenantzen arabera aplikatu beharreko EOZ, tasa, prezio publiko edo zergak autolikidatuko dira, sailkatu gabeko jardueren irekierari eta funtzionamenduari buruz jakinarazitako ekintzetan salbu (salbuetsiak). Kasu horretan, Zergen Atala arduratuko da likidazioaz.

Dagozkion egiaztapenak egin ondoren, pertsona eskatzaileari jakinarazpeninprimakiaren kopia bat itzuliko zaio, "Jakinarazitako jarduera" zigiluarekin.

2.- Jarduera edo obra baten berri emateko aurkeztutako dokumentazioa Hirigintza Atalari bidaliko zaio, ondore egokiak izan ditzan, Jardueren Erregistroko ohar gisa, etab. Udaleko Zerbitzu Teknikoek ikuskaritza-bisita egingo dute, araudia aplikagarria betetzen dela egiaztatzeko. Zehaztasunen bat falta dela, datu faltsuren bat dagoela edo funtsezko informazioaren bat sartu ez dela egiaztatzen bada, erantzukizunpeko aitorpenean edo aurre-jakinarazpenean aurkeztutako datu, adierazpen edo agiritan, jarduera egiten jarraitzeko ezintasuna zehaztu ahalko da.

Inguruabar horiek aitortzen dituen ebazpenak honakoak ezarri ahalko ditu:

- a) Interesdunaren betebeharra, egoera juridikoa aitorpenaren, eskubide-betearazpenaren edo dagokion jardueraren hasieraren aurreko unera lehengoratzeko.
- b) Xede bererako beste prozedura bat eskatzeko ezintasuna, epe zehatz jakin batean. Hori guztia, sektoreko arau aplikagarrietan ezarritako baldintzen arabera.
- c)

BEDERATZIGARRENA. ESKAKIZUN OROKORRAK.-

1.- Prozedura honekin tramitatutako lizentziak edo baimenak ez dira lortutzat joko isiltasun administratiboagatik, hirigintzako legediaren edo plangintzaren aurka badoaz. Ez dute eraginik izango agiri okerrekin, osatu gabeekin edo desegokiekin jakinarazitako jarduerak.

2.- Prozedura hau Ordenantza honetan ezarritako kasuetan eta baldintzatan bakarrik izango da aplikagarria. Jaso ez diren gainerako jarduerak ohiko eskabide-prozedura eta berariazko ebazpena bete beharko dute, hirigintzako lizentziei aplika dakieken araudian adierazi bezala.

3.- Jarduera horiek duten prozedurazko araubideak ez ditu horien titularrak salbuesten eginbehar fiskal eta administratibotik, ez erantzukizun zibil eta penaletatik, eginbehar

eta erantzukizun horiek indarrean dauden araudian ezarrita badaude.

HAMARGARRENA.- JAKINARAZITAKO JARDUERAREN ONDORIOAK.-

1.- Jakinarazitako jarduerak eraginak izango ditu Udalaren eta aipatutako jarduera gauzatzen duen interesdunaren artean, baina ez da aldatuko honen eta beste pertsonen arteko egoera juridiko pribaturik. Jakinarazitako jarduerak jabetza-eskubidea salbu eta hirugarrenei kalterik eragin gabe egingo dira eta titularren erantzukizunpean gauzatu beharko dira.

2.- Deskribatutako lanak eta jarduerak bakarrik egin ahal izango dira. Berariaz aipaturik ez dagoen jarduera-motaren bat eginez gero, dagokion baimena eskatu beharko da, jar daitezkeen zigorrei kalterik egin gabe, hirigintzako arau-hausteagatik zigorespeditentea ireki ondoren.

3.- Pertsona interesdunak udal-zerbitzuen esku izango du eginbidetutako jakinarazpena duen inprimakia, eta zerbitzu horietako udal-langileei obran edo jardueran sartzeko baimena emango die, ikuskatzeko eta egiaztatzeko.

4.- Jakinarazpenetik gehienez sei (6) hilabeteko epean egin beharko dira lanak, eta, epe hori igarotakoan, jakinarazitako jarduera iraungitzat joko da, pertsona interesdunak luzapena edo atzerapena eskatu ez badu obrak egiteko; horrelakoetan epearen kontaketa eten egingo da. Obrak egiteko luzapena gehienez ere beste sei (6) hilabetekoa izan daiteke.

5.- Inola ere ezin da lanik edo jarduerarik egin hirigintzako ordenazioaren eta indarrean dagoen legediaren aurka.

6.- Honakoak beteko dituzte, eragiten dien neurrian: Irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legea, 68/2000 Dekretua eta Eraikuntzaren Kode Teknikoa (EKT) onesten duen martxoaren 17ko 314/2006 ED; Behe-tentsioko 842/2002 Arautegi Elektronikoa; Eraikuntzako Instalazio Termikoen Araudia, egoitzako hiri-lurzoruko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatu beharreko arau tekniko orokorrak onesten dituen ekainaren 11ko 171/85 Dekretua, Plan Orokorreko Hirigintza Arauetan eta udal-ordenantzetan ezarritakoa, eta laneko segurtasun eta osasunean indarrean dauden gainerako xedapenak.

7.- Obrak hasi eta gero aldaketak egin nahi badira, Udalari idatziz eman beharko zaio horren berri.

8.- Lanak egitean nahitaez konpondu beharko dira obrek herri-bidean sortu dituzten galerak, eta horietan segurtasun-, osasungarritasun- eta garbitasun-baldintzak mantendu beharko dira.

9.- Herri-bideetan ezingo da aldamiorik, eskailerarik, makinarik, tresnarik edo tresneriarik jarri, ezta inolako objektu eta eraikuntzarako materialik ere, jendearen joana oztopatzen badute eta horretarako berriazko baimenik ez baldin badago. Udaltzaingoak herri-bidetik ken ditzake elementu horiek eta baimendu gabeko edukiontziak.

10.- Jakinarazpen bidez baimendutako herri-bideko okupazioek uneoro errespetatuko dituzte bai ibilgailuen trafikoa, bai oinezkoen joan-etorriak ere.

HAMAIKAGARRENA.- KONTROL-ARAUBIDEA ETA UDALAREN IKUSKAPENA.

Indarreko legeriak eratzikitako ikuskapen funtzioak burutuko dituzte udal zerbitzu teknikoek, hirigintzako legeria betetzen dela egiaztatze aldera, betiere Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/06 Legearen 217 eta 218. artikuluetan, Herri

Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 39.bis.2 artikuluan eta Ingurumenaren Babesari buruzko 3/98 Lege Orokorraren 64. artikulua eta hurrengoek (hainbat lege aldatzeari buruzko apirilaren 23ko 7/12 Legearen bidez aldatua, barne merkataritzako zerbitzuen gaineko 2006/123/EE Zuzentarauari egokitzeko) ematen dien ahalmena dela bide".

HAMABIGARRENA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.-

Udaleko administrazioari jakinarazitako jarduerak betetzean arau-haustea egiten badira, indarreko lege-xedapen egokiak aplikatuko dira eta, hala badagokio, zigorrak ezarriko dira, dagokion zigor-prozeduraren bidez.

HAMAHIRUGARRENA.-

Ordenantza hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hamabost eguneko epean, apirilaren 2ko 7/85 Legeko 70.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

2012-9-27ko Udalbatzak onarturiko aldaketak barne